

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

243. zenbakia

Data 2013-12-23

2 orria

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak
OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
1084/2013 Foru Agindua, abenduaren 18(e)koa, 20R eredua onartzen duena

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.084/2013 FORU AGINDUA, abenduaren 18(e)koa, 20R eredua onartzen duena, zeinaren bidez jakinaraziko baitaategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, eta aktibo eta pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzeko sozietateen gaineko zergan ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzearen aldeko aukera egiten dela.

Bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, eta aktibo zein pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzeko araubide berezia zerga geroratzeko araubide gisa ageri da erregulatuta, zenbait eragiketarako, sozietateen gaineko zergan.

Ondorio horietarako, zergaren foru arauak dio araubidea aplikatzeko, ezinbestekoa dela hura aukeratzea eta hautua erregelamenduz ezartzen den eran jakinaraztea.

Alde horretatik, ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duenak, 43. artikuluan ezartzen du non, nola eta zein epetan egin behar den komunikazio hori, baina indarrean dagoen araudian ez da oraindik onartu hori egiteko behar den eredurik.

Kontuan izanik araubide honek garrantzi handia duela zergaren barruan, eta haren ondorioak denboran luzatzen direla (zerga geroratzea baitakar), komeni da komunikazio horretatik ondorioztatzen den informazio guztia sistematizatzea, eta horretarako eredu berri bat sortzen da, zeinaren bidez jakinaraziko baitaategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, eta aktibo zein pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzeko zerga araubide berezia aplikatzea aukeratzen dela.

Honenbestez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 20R eredua onartzea.

Onarturik geratzen da 20R eredua, bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, eta aktibo zein pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzeko sozietateen gaineko zergan ezarrita dagoen araubide berezia aplikatzearen aldeko aukera jakinaraztekoa. Eredua eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

2. artikulua. 20R eredua aurkeztera behartuak.

Bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, eta aktibo zein pasibo osoaren lagapenak egiteko nahiz europar sozietate baten edo europar sozietate kooperatibo baten helbide soziala Europar Batasuneko estatu batetik beste batera aldatzeko ezarritako araubide berezira biltzen diren entitate hauek aurkeztu behar dute 20R eredua:

a) Bategite edo zatiketa eragiketak direnean, entitate eskuratzailleak edo eskuratzailleak aurkeztu behar dute 20R eredua.

Bategite edo zatiketa eragiketak egiten badira entitate eskuratzaillearen eta entitate eskualdatzaillearen egoitza fiskala Espainian izan gabe, eta eragiketa horietan ez bada aplikagarria zergaren foru arauak 91. artikuluan jasotzen duen araubidea entitate eskuratzailleak ez duelako herrialde horretan establezimendu iraunkorrik, eragindako bazkide egoiliarak aurkeztuko du 20R eredua.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean edo aktibo eta pasibo osoa lagatzen denean, entitate eskuratzaileri edo eskuratzaileri dagokie 20R eredua aurkeztea.

Entitate horien egoitza fiskala Espainian ez dagoenean eta herrialde horretan establezimendu iraunkor bidez jarduten ez dutenean, 20R eredua aurkezteko obligazioa pertsona edo entitate eskualdatzailleak izango du.

c) Baloreak trukatzeko eragiketetan, entitate eskuratzailleak aurkeztuko du 20R eredua.

Baloreak eskuratzen dituen entitatea eta baloreak trukatzen dituen entitate partaidetua ez badira Espainian egoiliarak, eragindako bazkide egoiliarak aukeratuko du 20R eredua.

d) Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, sozietateak berak aurkeztuko du 20R eredua.

3. artikulua. 20R eredua aurkezteko moduak.

20R eredua telematikoki baino ezin da aurkeztu, eta subjektu pasiboak berak edo haren ordezkari batek egin dezake aurkezpena.

Fitxategi bat igorritz aurkeztu behar da 20R eredua, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duen azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak xedatutakoari jarraituz.

4. artikulua. 20R eredua aurkezteko epea.

1. 20R eredua aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da oro har, eta honela konputatuko da:

a) Eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa inskribatu bada, inskripzioa egin denetik aurrera konputatuko da epea.

b) Inskripzioa ez bada beharrezkoa, epea konputatuko da eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egiten den egunetik aurrera, eta eskritura horretan jasota egon behar du araubidearen aldeko aukera egin dela, horrela baitio 104.3 artikuluan uztailearen 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak.

c) Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, epea konputatuko da eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa edo agiri baliokidea sozietate helbide berriaren estatu kideko erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa hala izanik ere, foru agindu honen 2. artikuluko a) eta c) letretako bigarren paragrafoetan aipatzen diren kasuetan, 20R eredua aurkeztuko da eredu hau aurkeztera behartuta dagoen bazkideak errenta zergaren edo sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko duen epe berean.

5. artikulua. 20R eredua aurkezteko tokia.

1. Bide telematikoz igorri behar diren fitxategi informatizatuak prestatzeko, zergapekoek Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgune ofizialean eskura izango duten laguntza programa erabili behar dute; Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan ere eskuratu dezakete programa hori, www.gfaegoitza.net helbidean.

Fitxategi elektronikoa igortzeko, laguntza programak berak erraztuko du sartzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kokatuta dagoen "Gipuzkoataria" zerbitzu informatikoen atarian. Behar den orrian sartu ondoren, identifikazio sistemak eskatzen dituen datuak bete behar dira, eta gero fitxategia bidali.

2. Fitxategia bidalitakoan, zergadunak aurkeztutako komunikazioaren kopia bat inprimatu ahal izango du, eta kopia horrek zigilu digital bat eramango du, aurkezpena telematikoki egin izanaren frogak gisa.

Bidalitako fitxategiak errorea ematen badu, «Gipuzkoatarian» ohar bat jarriko zaio ikusgai zergapekoari, errefusaren berri emateko eta zer errore izan den jakinarazteko. Errefusatutako komunikazioa berriro igorri ahal izango da, behin erroreak zuzenduta.

3. Igorritako komunikazioarekin batera foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen den dokumentazioa bidali behar bada, azken hori bide telematikoz aurkeztu ahal izango da, bidezko fitxategiak igorrita. Horretarako, dokumentazioa aurkezteko plataforma orokorra erabiliko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzuan sartuta.

Komunikazioa aurkezteko ezarrita dagoen epearen barruan igorri beharko dira dokumentuak.

6. artikulua. 20R ereduarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1. 20R ereduari 2. apartatuan aipatzen den dokumentazioa erantsi behar zaio beti.

Hala ere, dokumentazio hori ez da eskatuko, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko hura jaso duenean 036 edo 60S ereduak lehendik aurkeztu zaizkiolako.

Ondorio horietarako, ereduan espresuki adierazi behar da nola aurkeztu zaion lehendik dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiari edo, bestela, zein modutan aurkezten zaion orain.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, 20R ereduari agiri hauek erantsi behar zaizkio:

a) Bategite edo zatiketa kasuetan, Merkataritza Erregistroan bategite edo zatiketari buruz inskribatutako eskritura publikoaren kopia, eta, era berean, merkataritza arauei jarraituz erregistroan inskribatzeko eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Inskripzioa ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren kopia aurkeztu behar da, eta eskritura horretan jasota egon behar du araubidearen aldeko aukera egin dela, horrela baitio 104.3 artikuluan uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak.

b) Diruzkoak ez diren ekarpenak egiten direnean, aktibo nahiz pasibo osoa lagatzen denean, edota baloreak trukutzen direnean, kapital soziala eratu edo zabaldu izanaren eskritura publikoaren kopia, eta merkataritza arauei jarraituz eskriturari derrigorrez erantsi behar zaizkion beste dokumentuen kopia.

Kapital soziala eratu edo zabaltzeko eskritura ez bada beharrezkoa, eragiketa dokumentatzen duen eskrituraren kopia aurkeztuko da.

c) Aurreko eragiketak akzioak erosteko eskaintza ireki baten bidez burutu badira, dagokion eskuorri informatiboaren kopia ere aurkeztu beharko da.

d) Sozietate helbidea aldatzeko eragiketetan, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoaren edo agiri baliokidearen kopia aurkeztuko da, baita helburuko estatu kideko erregistroan hura inskribatzeko derrigorrezkoak diren beste agirien kopia ere.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren berregituratze eragiketak jakinarazteko aplikatuko da.

Donostia, 2013ko abenduaren 18a.—Helena Franco Ibarzabal, Departamentuko foru diputatua.

(10798)(11918)

ERANSKINA

